



**Arartekoaren 2013ko ekainaren 19ko ebazpena. Horren bidez Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Donostiako Udalarari gomendatzen zaie futboleko aritzeko espazio publikoetan eta, bereziki, Kontxako hondartzan, neurriak har ditzaten eta txapelketa maskulinoak eta femeninoak berdintasun irizpideei jarrai joka daitezten.**

### Aurrekariak

1. Arartekora jo zuten lehen mailako 5. eta 6. mailako ikasketak egiten ari diren eta ikastolako taldearekin Gipuzkoako Foru Aldundiak koantolatutako eskola-kiroleko jardueretan parte hartzen duten neskatilen gurasoek. Azaldu zutenaren arabera haien alabek hainbat kirol-jarduera garatzen dituzte aldundi horrek sustatutako "multi-kirola" proiektuaren esparruan, eta horren filosofiarekin oso pozik daude. Ez zeuden ados, ordea, proiektu hori osatzen duten kiroletako baten antolamendu alderdi batekin: futbola, hain zuzen, eta horren garapenean, adierazi zigutenez, Errealak (Real Sociedad de Fútbol SAD) laguntzen du.

Pertsona horiek azaldutakoarekin bat, programa horren esparruan jokatzeko diren partiduak Kontxako hondartzan izan daitezke taldeak maskulinoak edo mistoak direnean. Nesken taldeak, berriz, praktikan aplikatzen diren antolamendu irizpideen arabera, Añorga eta Puioko zelaietan jokatu behar dira. Haien ustez, horrek txapelketa femeninoak gizarte-ikuspen gutxiagoko lekuetara baztertzen dituzte eta hori botere publikoen jarduerak buru izan behar dituen genero berdintasunarekiko errespetuaren eta sustapenaren printzipioen aurkakoa da.

2. Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirola Departamentuaren lankidetzak eskatu genuen aipatu gertakarien inguruan informazio nahikoa eta zehatza bidal diezagun, baita mahaigaineratutako kontuen harira haren ustez hartu beharreko neurrien inguruan ere. Horrez gain, eta Berdintasun Zuzendaritza Nagusiaren bitartez foru erakunde horrek sustatutako genero berdintasunaren politiken zeharkako izaera aintzat hartuta, iruditzen zaigu egokia dela azken horri laguntza eskatzea, tartean den departamentuarekin lankidetzan arituz, azterketan bertan parte har zezan. Halaber, gure iritziz kasuan aplika zitezkeen arauzko irizpide batzuk helarazi genizkien eta, errepikapenak saihestearren, ebazpen honek oinarri dituen gogoetetan aipatuko ditugu.
3. Foru aldundiak Berdintasun eta Kirol zuzendaritza nagusiek sinatutako txostenaren bidez erantzun zuen. Bertan lehenengo haren lurraldean eskola-kirolaren programa osatzen duten jardueren antolamenduaren izaera deszentralizatua eta partizipatiboa azaldu zuen. Aipatu jardueretan ikastetxeak, kirol klubak, federazioak eta udalak elkarlanean aritzen dira. Aldundiak onartzen duen jardueren urteko programak, hala, tokiko edo eskualde mailan





udalerrien, klubien eta ikastetxeen kargura jazotzen den esparru eskaintza agerian jartzen du. Maila horretan zehazten da, hain zuzen, non garatuko diren jarduerok.

Donostiako alebinen kategoriako nesken futboleko txapelketei dagokienez, foru erakundeak Donostiako Kirolen Udal Patronatuak emandako informazioa helarazi digu eta horren arabera ikastetxeak izan ziren aipatu txapelketa sustatu zutenak, batzarrean erabaki zutenak hondartzako txapelketatik at dagoen lehiaketa bigarren edo hirugarren hiruhilekoan eta futbolerako udal zelaietan egingo zen, hondartzako txapelketaren finaletan parte hartuz nesken txapelketa hori agerian jartzeko.

Dena den, esan digute, 2009-2010 denboraldiko Kontxako hondartzaren txapelketako azken jardunaldi horretan sariak banatzerakoan jazotako desberdintasunen aurrean (ez aldundiak emandakoak, bai, ordea, hainbat kolaboratzaileengandik federazioak bildutakoak), ikastetxeek azken jardunaldi horretan parte ez hartzea erabaki zutela, baita nesken txapelketa Zubietako instalazioetan jardunaldi-festa batekin amaitzea ere. Azken horretan Errealeko lankidetzak izan zen eta aldundiak eta Kirolen Udal Patronatuak emandako sariak eta opariak banatu ziren. Eta ordutik hala egiten da.

Foru aldundiak amaitu du esanez, eskatutako informazioa aztertu ondoren, erabilitako irizpideek ez dutela inolaz ere justifikatzen eskola-kirolaren programaren esparruan futboleko jokatzeko antolatutako espazioen sexuen araberako erabilera desberdindua. Horregatik, eta foru erakundeak aipatu programan duen egitekoaren garrantzia kontuan hartuta, aldundiak bi konpromiso hartu ditu: alde batetik, beharrezko neurriak abian jarri, ahalik eta epe laburrean, modu eraginkorrean ezaba dadin futboleko jokatzeko espazioen erabileran sexuaren araberako bereizketa; bestetik, aipatu programan esku hartzen duten gainontzeko agenteekin batera, zer ekintza positibo har daitezkeen, oro har, nesken kirolerako eta, bereziki, futbolerako (gaztelaniazko bertsioa horiek ezartzeko egokitasuna aztertzeari buruz mintzo da). Hori guztia ikuspen handiagoa emate aldera, geroz eta espazio eta presentzia publiko handiagoa eskuratzen joan dadin.

4. Jasotako erantzuna ikusita, erakunde honek gomendioak gaineratzen dituen honako ebazpena eman du, ondoko gogoetetan oinarrituta



## Gogoetak

1. Eskola-kirolaren programak barne hartutako jardueren izaera deszentralizatzailea eta partizipatiboa bere horretan balio bat da eta inolaz ere ez dago lurralde historiko bakoitzeko foru erakundeek arlo horretako legezko aginduari jarraiki bete behar duten zereginaren aurka, osatu egiten baitu. Hizpide dugun aginduaren arauzko esparrua da, gai honi dagokionez, erakunde honek 2013ko apirilaren 22ko haren ebazpenean jasotakoa, eskola-kirolaren programako jardueren antolamenduan genero ikuspegia gehitzeari buruzkoa. Hortaz, kekek hizpide duen egoera eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako Udalak kontu hori jorrazteko eman digun lankidetzara esparru hori kontuan hartuta baloratu behar dira.

Ebazpen hori aipatu zuen eta arlo honetan foru erakundeei dagokie: *"...araudi egokia ezartzea, baita abian jartzeko eta behar bezala betetzen dela ikuskatzeko beharrezkoak diren neurriak burutzea ere. Eskola Kirolari dagokionez, aldundiek onuragarrien iruditzen zaien sistemaren arabera antolatu ahalko dute, betiere 125/2008 Dekretuan ezarritako printzipioak errespetatuz. Bertako lehen eta bigarren atalean zera aipatzen du Eskola Kirolari buruz: "eskola-umeen heziketa integralaren barruan kokatuta egongo da eta heziketa sistemaren helburuekin bat egingo du eta ez da soilik lehiakortasunera bideratua egongo".*

Eginkizun horiek betetzerakoan, botere publikoek genero ikuspegia gehitu behar dute, emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legean xedatutakoarekin eta emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan jasotakoarekin bat etorritik. Hizpide dugun kasuan irizpideok aplikatzeak aipatu ebazpenean islatu eta hemen aipatu beharreko hausnarketara darama: *Izan ere, politika publikoak diseinatu eta bideratzerakoan, kontuan hartu beharra dago hainbat alorretan bi generoen arteko oreka falta, gizartean esleitzen zaizkien itzaropen eta roletan dagoen sexismoaren ondorio izateaz gain, oztopo bat dela pertsonen arteko berdintasun eraginkorrerako. Esparru horietako bat kirola da, eta bereziki maskulinitateak dauden modalitateetan, futboleko gertatzen den moduan.*

2. Berriz ere bidezkoa da adieraztea azken urteotan arlo horretan izandako aurrerapena, baita horren inguruan politika publikoek izan duten garrantzia ere, eta horien artean Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutakoak. Emaitzetako bat da neskak eskola-kirolaren programaren esparruan sartzea, alebin kategoriako



futbol txapelketetan, kontuan hartuta duela hamar urte baino gutxiago mutilentzat bakarrik antolatzen zirela.

Donostiako Kirolen Udal Patronatuak emandako informazioa testuinguru horretan kokatu behar da, une hartan aipatu txapelketak hondartzan edo zelaian jokatzeko egokitasunaren inguruan erabakitzeke aintzat hartu ziren bi irizpideak aipatzerakoan: alde batetik, hondarrezko zelaien edo belar artifizialeko zelaien baldintza teknikoak; eta, bestetik, futboleko egutegia kategoria horretan egin beharreko taldeko bigarren kirolaren egutegiarekin uztartzeko beharra.

Egungo egoera, hirugarren aurrekarian jasotakoa, ikastetxeen asanbladako bi erabakiren ondoriozkoa da: alde batetik, ezarri zuten nesken futbol txapelketa, aurreko paragrafoan jasotako bi baldintzatzaileen arabera eta, kategoria bereko mutilen futbolekoarekin ez bezala, hondartzeko txapelketatik bereiztea eta udal zelaietan jokatea; bestetik, nesken txapelketa, hala ere, hondartzako txapelketan aintzat hartzea, agerian jartzeko asmoz. Nolanahi ere, zentroek aukera hori ukatzen amaitu zuten Gipuzkoako Futbol Federazioak bildutako sarien banaketan nesken eta mutilen artean jazotako desberdintasunak ikusirik. Egoera horren ondotik Zubietan egin ohi den urteroko jardunaldia/festa sortu zen.

Azken inguruabar hori oso esanguratsua da hizpide dugun arloan benetan berdintasuna lortzeko bidean oraindik gainditu behar diren zailtasunei dagokienez. Edozelan ere, eta kirola egiteko espazio publikoen antolamenduari dagokionez, emandako informazioak hausnarketa bikoitza eragiten du:

- a. Nesken kirola agerian jartzea bere horretan helburu bat bada eta hori lortzeko ikastetxeen asanbladak egokitzen jo bazuen herritarrek Kontxako hondartzan neskek jokatzeko dituzten partiduak ikustea, ez dirudi arrazoizkoa finaleran aukera hori mugatzeak. Txapelketa osora orokortu beharko litzateke eta horrek mezu kaltegarria helaraztea saihestuko luke; hala gertatuko bailitzateke emakumeen eta nesken futbola gizarte-ikuspen handiagoko txapelketetan egotea bezain salbuespenezkoa eta esporadikoa dela ulertuko bagenu.
- b. Logikoa da txapelketak antolatzerakoan zelaietako baldintza teknikoak eta taldeko kirolaren lehenengo eta bigarren egutegiak bateragarri egiteko beharra aintzat hartzea. Hori bai, hasiera batean neskak eta mutilak berdinduz baldintzatzen dituzten irizpideak dira. Kirolen Udal Patronatuak horren inguruan ematen duen informazioak ez ditu barne hartzen, ondorioz, kirol txapelketa



jokatzeko eskuragarri dauden espazio publikoak sexuaren arabera desberdintzeko erabilera arrazoizkoa dela ulertzeko judizio-elementuak.

Horri dagokionez, ezin da alde batera utzi eskola-kirolaren nesken txapelketak hasi zirela denbora asko igaro zenetik mutilenak abian zeudenetik eta horrek nolabaiteko ohitura eragiten duela, alegia, espazio publiko agerikoenak eta enblematikoenak modu "naturalean" batzen direla betidanik horietan beti jokatu izandako mutilen txapelketekin. Are gehiago halako kasuetan –esaterako Kontxako hondartzarena; bertatik historikoki Donostiako futbolaren pertsona ospetsuak irten dira-, Donostia harro egongo litzake haren etorkizuneko jokalaririk neskak hiriarentzako hain adierazgarria den leku batean jokatutako txapelketetatik atera izanaz (Donostiak goreneko kategoriako nesken taldea dauka futboleant).

Hortaz, botere publikoen egitekoa da inertzia hori jazotzen den lekuetan aipatu inertzia antzeman eta gainditzeko laguntzea legeak ezartzen duen genero-ikuspegitik. Horren arabera espazio publikoetan emakumea sartzeak espazio horiek berriro berdintasun irizpideei jarraiki antolatuko behar direla esan nahi du. Alegia, demandak jokaleku jakin batean jokatzearen erabilgarritasuna gainditzeko duen bitartean –dela hondartzakoa edo beste edozein-, beharrezkoa izan daiteke txapelketak hainbat lekutan banatzea baliabideak behar bezala kudeatzeko. Hori bai, horrek ez du justifikatzen mutilak nesken aurrean lehenetsi izana Kontxa bezalako garrantzi handiko leku batean jokatzerakoan. Kontxak balio sinboliko handia dauka Donostiako kirolerako eta gainera, bertan jokatzen diren jarduerak gizarte ikusgarritasun bikaina dute.

Orain arte emandako arrazoiak kontuan hartuta, esan behar dugu oso positibotzat jotzen dugula foru aldundiak, arlo honetako irizpideak aztertu ostean, ondorioztatu duela ezein moduk ez duela justifikatzen eskola-kirolaren programaren esparruan futboleant jokatzearen antolatutako espazioak sexuaren arabera desberdintzeko erabilera. Hori zen, hain zuzen, erakunde honek kasu honetan bideratutako esku-hartzearen bidez agerian jarri nahi zuena eta, horregatik, gai honen inguruan egingo dugun gomendioaren aldeko harrera espero dugu.

3. Aldundiak ateratako ondorioa, funtsezkoa izan arren, berariazko ekintza positiboekin jorratu behar da foru erakundeak egiten dituen xedeak lortzeko eta ebazpen honen hirugarren aurrekariak hartzen du barne.



Aldundiak haren erantzunean konpromiso hori gain hartzen du, idazkiaren euskarazko eta gaztelaniazko bertsioek aipatu konpromisoa apur bat desberdin jorratzen badute ere: euskaraz adierazten da aipatu xedeak lortzeko har daitezkeen ekintza positiboak aztertuko direla eta gaztelaniaz, berriz, horiek ezartzeko egokitasunari buruz mintzo da. Bi bertsio horietatik orijinala zein den baino harago, uste dugu egokia dela desberdintasun hau jasotzea indarrean dagoen araudia betetzeko garrantzia dela-eta. Izan ere, hizpide dugun kasuan bezalakoetan, mota honetako jarduerak ezartzeko egokitasuna ez da botere publikoek iritzia eman edo eztabaidatu behar duten gaia: segurutzat jo behar da, ordenamenduak berak behartzen baitie horiek hartzera, aldundiaren hitzetan futboleko jokatzeko espazio publikoen erabilera sexuaren arabera banatzea kendu behar denean edo emakumeek eta neskek jokatutako kirolari ikuspen handiagoa eman behar zaionean.

3/2007 Lege Organikoaren 11.1 artikuluan halaxe aipatzen da honako hau ezartzen denean: *“Konstituzioan jaso den berdintasun-eskubidea eragingarri egiteko helburuarekin, botere publikoek neurri bereziak hartuko dituzte emakumeen mesedetan, gizonei begira egitezko desberdintasun-egoera nabariak zuzentzeko. Halako neurriak, aplikagarri izango direnak egoera horiek iraun bitartean, zentzuzkoak eta proportzionalak izan beharko dira, kasu bakoitzean lortu nahi den helburuari dagokionez.”* 4. artikulua, zentzu berean, gizonen eta emakumeen arteko aukera berdintasuneko printzipioa finkatzen du arauak interpretatu eta aplikatzeko irizpide gisa. Eta 29. artikulua, kirol arloa berariaz jorratuz, hauxe dio: *“Kirola garatzeko programa publiko guztiek barneratuko dute emakumeen eta gizonen artean benetakoa eta eragingarria den berdintasunaren printzipioa, eragingarritasunez kontuan har dadin, programok diseinatzean nahiz gauzatzean.”*

Bestalde, eta bereziki EAEko esparrurako, emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeak genero-ikuspegia politika eta ekintza publiko guztietan barneratu behar dela defendatzen du, baita horren inguruan jarrera proaktiboa hartu ere. Agindu hori kirol-eremuari aplikatuta, berdintasunerako euskal legearen 25. artikulua haren 3. atalean hauxe ezartzen du: *euskal herri-administrazioek neurri egokiak hartu behar dituzte kirol-modalitate guztietan emakumeek eta gizonek tratu- eta aukera-berdintasuna izango dutela bermatzeko.*

Horregatik, gure iritziz, aldundiko erantzunaren euskarazko bertsioak konpromisoa modu zuzenagoan egiten du, abiapuntutzat hartzen baitu arlo horretan ekintza positiboak hartzeko beharra, programaren antolamenduan esku hartzen duten eragileei utziz egokienak zeintzuk diren erabakitzea, zilegi eta



egoki den moduan. Edozelan ere, eta aipatu balorazioaren emaitza alde batera utzita, arrazoizkoa dirudi pentsatzeak horiek, datorren ikasturteari begira, eskola-kirolaren programan erabiliko diren espazio publikoak berdintasun irizpideak aintzat hartuta antolatuko direla. Erakundeen esparrutik Donostiako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak parte hartu dutela kontuan izanda, bietara jo beharko dugu, bakoitzak haren funtzioak baliatzerakoan, horretarako beharrezkoak diren neurriak har ditzaten.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### Gomendioa

Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Donostiako Udalarari beharrezko neurriak har ditzaten, bakoitzak haren funtzioak eta eskumenak baliatzean, eskola-kirolaren esparruan futboleko jokatzeko espazio publikoetan eta, bereziki, gizarte-ikuspen handiagokoetan –adibidez, Kontxako hondartza) datorren ikasturtetik aurrera txapelketa maskulinoak eta femeninoak joka daitezten. Hori guztia espazio horien erabileran sexuaren araberako bereizkeria ekiditeko, baita emakumeek eta neskek egindako kirolari ikuspen, espazio eta presentzia publikoa handiagoa eman dakion.

